



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
207.zkia . 2008ko otsaila

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN



KOFRADIA ETA UDALA EUSKARAREN ALDE



JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA

Merkataritza indartzeko egitasmoak lehen urratsa eman du

Hondarribiko Merkataritza indartzeko egitasmoa gero eta hurbilago dago. Udalak esleipena arautuko duen baldintza-orria onartu du, eta ekainaren 25 arteko epea egongo da azterketa sakon hau burutzeko.

Gaur egun merkataritzak bizi duen egoera aztertuko duen dokumentua izango da, eta horren gainean lan egiteko ezinbestekoa izango da, eragile desberdinen laguntzarekin, hala nola, Udala, merkatoriak, ostalariak... Denen artean, Hondarribiak komertzio aldetik duen garrantzia indartu nahi dute, ahalik eta zerbitzu onena eskaini ahal izateko.

Esan bezala, lanak ekainaren 25ean entregatu beharko dira, eta lizitazio prezioa, 31.500 eurokoa izango da.

Informazio gehiagorako, www.hondarribia.org web gunea kontsulta daiteke, Informazio Praktikoaren atalean, hain zuzen ere Kontratazioa-ren puntuan.



Merkataritza indartzeko plana Portua auzoan zentratzen da

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Vanessa Hernández Caverio

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK MARTXOAN

2- IRAOLA San Pedro, 5	.943641027
9- SAGRARIO FIZ Sokoa	.943 644316
16- ALMAJANO Mendelu, 26	.943 640068
19- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso	.943 642191
20- ALMAJANO Mendelu, 26	.943 640068
21- ALAMEDA Harresilanda, 9	.943 645798
23- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso	.943 642191
24- IRAOLA San Pedro, 5	.943641027
30- IRAOLA San Pedro, 5	.943641027

TXANDAKO OKINDEGIAK MARTXOAN

2- Arratibel Mendelu auzoa	.943641975
9- Garmendia Portuan	.943641136
16- Martinez Kale Nagusian	.943641212
19- Arratibel Mendelu auzoa	.943641975
20- Garmendia Portuan	.943641136
21- Martinez Kale Nagusian	.943641212
23- Arratibel Mendelu auzoa	.943641975
24- Garmendia Portuan	.943641136
30- Martinez Kale Nagusian	.943641212

Portua eta Donosti kalea eskailera mekanikoen bidez lotuko dira

Portua eta Donosti kaleko irisgarritasuna hobetzeko gaia askoren ahotan egon da azken aldiotan. Badirudi erabaki definitiboa laister helduko dela. Aitor Kerejeta alkateak otsailaren erdialdean aurkeztu zuen bere bulegoan egindako prentsurreko batean zein izan den alderdi politikoek aho batez hartu duten erabakia. Esan behar da, EAE/ANV alderdia ez zela partiduen arteko bilera hartan izan, hain justu, otsailaren 14ko greba egunean burutu baitzen.

Kerejeta alkateak esan zuenez, “azkenik ez dugu igogailu bat erai-kiko, baina bai eskailera mekanikoak. Nik, alkate bezala, eta gobernuko taldea osatzen dugunok asko pentsatu eta hitzegin dugu gai honen inguruan, eta azkenik iruditu zaigu erabaki hau hartzea egokiena dela. Igogailu bat jartzeak bere kolpea izan zezakeen ingurugiroan, batzuentzat kolpe polita izango zen, beste batzuentzat ez, baina hiriaren irudian zerbait berria izango zela dudarik ez dago”.

Eskailerak hiru zati izango ditu. Lehena behetik lehen plazara doana, hortik bigarren plazara beste eskailera bat egongo da, eta azkena, Donosti kalera igoko dena. Igotzeko eta jaisteko noranzkoan bana egongo da, eta behetik gorako noranzkoan, eskuineko aldean ezinduentzako pasabide bat jarriko da.

SOS Madalen Karrikarekin bilera

Erabakia plazaratu baino lehen, Kerejeta alkateak bi bilera izan zituen bizilagunekin. Hauek, lehen zatian eskailera ez jartzea eskatu zioten, eta lehen zati honetarako beste kokaleku bat pentsatzea, hain zuzen ere, Arrantzale Auzoaren atzealdean.

Kerejetak kontu hau aztertuko zuen hitza eman zuen eta datozen asteetan erabaki bat hartuko dela iragarri zuen.



Bizilagunek lehen eskaileren lehen zatia aldatzea eskatu dute



Aitor Kerejeta eskaileren proiektua aurkezten

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Euskal txiste grafikoaren lehiaketako saridunak ezagutzen dira

Euskara Batzordeak antolatutako XVI. Euskal Txiste Grafikoaren lehiaketako sari banaketa pasa den larunbatean ospatu zen. Hiru kategoria desberdintzen dira lehiaketan, 16 urtetik gorakoak, 12 eta 16 bitartekoak eta 12 urtetik beherakoak.


A mailan, irabazlea Joseba Ponce izan da, 'Garai Berriak' izeneko lanarekin, eta bigarrena, Egoitz Alcaraz, 'Katua' marrazkiarekin. Lehenak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak 200.

B mailan, 12 eta 16 urteko gazteek parte hartzen dutena, garailea Pablo Elosegia eta "Palmera hits" izan da, bigarren Lara Goikoetxea sailkatu delarik, "Dark princess" lanarekin. Hirugarren, Mikel Urkia eta "Baserri eroa" marrazkia geratu da. Lehen sailkatua 150 euro lortu ditu eta bigarren eta hirugarrenak 60, baita komik sorta bat ere.

D mailan, lehen saria Martxel Eizagirrek lortu du "Madasa" lanarekin eta bigarrena Itxaso Emazabelek "Afrika" marrazkiarekin. Bakoitzari komik sorta bat tokatu zaio sari bezala.



XVI. edizioko garaileak, epaimahai eta udal ordezkariekin



Aiert Alonsok lanak aztertu eta azaldu zituen

a-dos moda

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69

AXOLA INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

Aste Santuko VII. argazki lehiaketa antolatu da

Udaleko Turismo Sailak Hondarribiko VII. Argazki Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan edonork parte har dezake, bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, inoiz saritu edota argitaratu gabeak.

Neurria libre da, baina argazki bakoitza 30 x 40 zmko kartulina batean jarri beharko da. Lanaren atzealdean izen bat idatziko da eta horrekin batera datorren kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren edo lanen izen berdinak. Kartazalaren barruan egilearen izen abizenak, helbidea, telefonoa eta NANaren fotokopia erantsiko dira.

Argazki guztiak Udal Liburutegian -Zuloagan Etxea- utziko dira, apirilaren 14tik 15a bitarte. Argazki onenak, Zuloaga Etxean 2009ko Aste Santuan erakutsiko dira.

Irabazlearentzat 500 euroko saria izango da, 400 euro bigarrenarentzat eta 300 hirugarrenarentzat.



Aste Santuarekin lotutako edozer aurkez daiteke lehiaketara

Arte beka deialdia luzatu du Kultura departamentuak



Deialdian argazkilaritza sartzen da

Kultura departamentuak arte plastiko, argazkigintza eta zinea arlo-etako sormen artistikoari laguntzeko hiru beka emateko lehiaketa-rako deitu du. Arte plastiko eta argazkigintza arloetako sormen artistikoaren barnean hurrengo sailak jasotzen dira: pintura, eskultura, obra grafikoa, argazkigintza eta zinea. Obraren azken gauzatzean, aipatutako espezialitate guztiak edo haietako edozein erabil daiteke, bakarka nahiz multzoka.

Bekak eskatzeko, arlo horietako arte sorkuntzan aritu nahi badute eta azken bost urte hauetan Udaletik jarduera horretarako bekarik jaso ez badute. Horrez gainera, nahitaezkoa izango da Hondarribian jaio edo gutxienez bost urtez bertan bizi izatea.

Eskabideak aurkezteko epea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarriak argitaratzen direnetik hogeita hamar eguneko izango da. Eskabideak Hondarribiko Udaletxeko BAZ bulegoan aurkeztu beharko dira, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 18:00etara eta larunbatean 9:00etatik 13:00etara.

Beken datazioa gehienez lau mila euro (4.000) izango da eta bi epetan ordainduko dira. %60 esleitzerakoan eta %40 egindako lanaren memoria dokumentatua aurkezterakoan eta bekadunek Udalari eman behar dioten arte lana entregatzerakoan.



Higer Bidea, n° 6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

80 urte dituzten eta urrezko ezteiak bete dituztenei omenaldia



Bazkarian ia hirurehun lagun bildu ziren

Kasino Zaharrak bere XIX. urteurrena dela eta jaialdi bat antolatu zuen. Bertan, beste zenbait ekitaldiren artean, 2007an 80 urte eta Urrezko Ezteiak bete dituzten bazkideei omenaldi bat eskaini zitzaion. Jai giro ezin hobean igaro zen bazkaria, eta sari-banaketa ondoren dantzaldi animatuari ekin zitzaion.

Aitor Kerejeta Alkatea eta Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia izan ziren bazkarian, beste hirurehun bat jubilatuekin batera. Omendutakoak honako hauek izan ziren:

- **80 urte bete zituztenak:** Luis García Briñas, Luis Zorzabalbere, Vicente Goikoetxea, Felix Oronoz eta Natividad Almendres.

- **Urrezko Ezteiak bete zituztenak:** Joaquin Arruabarrena eta Magdalena Julian alde batetik, eta Domingo Sagarzazu eta Mercedes Ancisar bestetik.



Bazkarian omenduak izan ziren kideak, Aitor Kerejeta eta Maite Pelaezekin batera



**BAR
HONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Zenbait nekazal bide hobetu dira

Gregorio Berrotaran zinegotzia lanak ikuskatzen aritu da

Udalak pasa den hilean esleitu zuen zenbait nekazal bideen zorua hobetu edo birgaitzeko lan kontratua. Aste gutxi igaro badira ere, jadanik sei bide horietatik hiru birgaitu egin dira.

Lur zorua hormigoiarekin tratatu da, eta inork laban egin ez dezan beharrezko neurriak hartu dira. Aurretik, bidearen er-tzetan dauden hosto eta adarrak garbitu ziren.

Hobetu diren bideak hauexek dira: Beko Errotako bidea (400 metro lineal), Gibeletakoa (200 m.l.), eta Zarautzeneatik Simonenean baserrira doana (380 m.l.). Datozen asteetan, ondoko hauekin hasiko da: Txiplaoaunditik Txendoneara doana (520 m.l.), Goikoerrotakoa (125 m.l.) eta azkenik, Mottenea eta Tristanberri lotzen dituen (180 m.l.).

Landa Garapeneko zinegotzi den Gregorio Berrotaran pozik da emandako urratsarekin. "Urtarrilean esleitutako sei bidetik erdia egin dira jadanik. Ikusi besterik ez da zein ongi geratu diren eta zer nolako funtzioa eskainiko duten. Uste baina jende gehiago ibiltzen da toki hauetatik, eta orain beharra den moduan egingo dute".

263.840 euroko aurrekontua izanda, denetara 1.085 metroko luzera duten bideak hobetuko dira.



Simoneneatik Zarautzenara doan bide berrituaren irudi bat



Beko Errotarako bidea birgaitu da ere

JATETXEA
LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ADVANCED
PHOTO SYSTEM

ARGAZKIAK
ORDU BETEAN

Itsasargi 3
 Tel. 943 64 57 65
 20280 HONDARRIBIA

Eliz musikaldiaren XXVI. edizioa antolatu du Kultura departamentuak

Hondarribiko Udaleko Kultura Departamentuak Eliz Musikaldia antolatu du hogeitaseigarren urtez. Iaz mende laurdena bete zen, eta indarberriturik, mar-
txoan beste lau kontzertu eskainiko dira.



Kontzertu denak Parrokian ospatuko dira

Kontzertu denak Kale Nagusiko Parrokian izango dira, 20:30etan.

Martxoak 8: EASO abesbatzaren haur kantariak.

Martxoak 29: Landarbaso Abesbatza.

Martxoak 15: Eskifaia Abesbatzaren kontzertua, organoz lagunduta.

Martxoak 16: CONDUCTUS Ensemble abesbatzaren kontzertua.

Bidasoa Turismoko ordezkariak Fitur-en egon dira bailarako turismoa indartzeko asmotan

Aitor Kerejeta Hondarribiko Alkatea hilaren hasieran Madrilera joan zen FITUR Nazioarteko Turismo Ferian parte hartzera, Hondarribiak eta Bidasoa bailarak dituen turismo baliabideak ezagutarazteko asmoz, eta era berean, Erdi Aroko Hiri eta Herrien Sarearen hedapenari buruz hartu diren neurriak jakitera emateko.

Feria ostegun batetik igandera ospatu da Madrilan, eta beste zenbait ekitaldiren artean, Erdi Aroko Hiri eta Herrien Sarearen baliabide turistikoak berri ematen duen gida bat aurkeztu zen. Bertan topa daitezke hiri hauen ondare, paisaia, ostatu... eta abarren berri guztiak.

Era berean, apirilaren 18tik 20ra Consuegran burutuko den estatu mailako pintxo eta tapa lehiaketa aurkeztuko da.

"Garrantzi handia duen feria da, eta Hondarribiak, eta Bidasoa Bailarak, bertan egon behar dutela uste dugu, asko baitaukagu erakusteko. Gainera, Erdi Aroko Hiri eta Herrien Sarearen baliabide turistikoak biltzen dituen gida aurkeztu genuen bertan, aurrerantzean euskarri garrantzitsua izango dena" esan du Aitor Kerejetak.



Bailarako ordezkariak Fitur-en



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxes: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Carmentorena etxearen desagerketak Arkollarako igoera leunduko du

Otsailaren erdialdean Kosta kaleko Carmentorena etxea bota egin da. Desagerpen honekin, Kostatik Arkollara doan igoera hobetzea bilatu nahi da, Llobregateko bide sarrera erraztuz. Amutetik datozenentzat, errepidearen eskualdean geldialdi bat izango da Arkollara igo nahi dutenentzat.

Birgaitze hau Carmentorena etxebizitzaren promozioaren barnean sartzen da. Eraikitzen ari den enpresa AZSE, SA da, eta berau da lanak egiteko ardura daukana. Bi hilabeteko epean erabilgarria izatea espero da.



Llobregat-era igotzeko sarrera erreztea da helburua

Kasino Zaharrerako sarrera errazteko obrak



Jubilatuaren egoitzeko sarreran lanetan ari dira

Kasino Zaharra jubilatuen egoitza eraikineko sarrera birgaitzen ari da. Sarrerako ateko eskailerak leuntzen ari da Udal Brigada, egoitzaren erabiltzaileak errazago hel daitezen.

Lanak bi hilabetetan amaituak egotea espero da, eta aurrekontua 12.000 eurokoa da.

Maite Pelaez, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, lan hauen garrantzia azpimarratzen du. "Gure jubilatuei sarbidea errazteko lehen urratsa da. Geroago, kanpoaldetik sarrera ahal den neurrian leundu nahi diegu erabiltzaileei, bidetxo bat asfaltatu egingo delarik, eraikinaren eskuinaldean dagoen ateraino. Aurrerantzean Kasino Zaharreko taberna zerbitzua ere hobetzea da asmoa".

Saindua gaztelekuak ekaina arteko programaketa prestatu du

Saindua Gaztelekuak martxotik ekainera ekitaldi sorta zabal bat prestatu du. Jarraian aurkezten diren ikastaro, tailer, irteera eta ekintza antolatu dituzte gazteei zuzenduta. Informazio gehiago lortzeko, 943 643198 telefonora deitu.

Ikastaroak

★ **Gitarra-Baxua:** asteazkenero martxoaren 5etik aurrera 18:00etatik 20:00etara. Taldeak osatuko dira eta taldeen arabera ordutegiak banatuko dira.

★ **Kapoeira:** ostegunero martxoaren 6tik aurrera 19:00etatik 20:30etara.

★ **Perkusioa:** ostiralero martxoaren 7tik aurrera 19:30etatik 20:30etara.

Ikastaroetan parte hartzeko 35€-ko kuota ordaindu beharko da. Izena ematen dutenei kontu korrante zenbakia emango zaie bertan diru sar dezaten. Izen emate epea: otsailaren 18tik 29ra.

Tailerra

★ **Manga:** astelehen eta ostegunetan 17:30etatik 19:00etara.

Tailer honetan parte hartzea doakoa da. Izen emate epea: otsailaren 18tik 29ra.

Irteera

★ **Eski-Snow irteera:** martxoaren 8an izango da. Izen emate epea otsailaren 18tik 22ra mugatuko da. Izen ematea egiterakoan kuota zein irteeraren ezaugarriak zehaztuko dira.

Jaialdia

★ **Ekainaren 26an**, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Ikastaroetako emanaldiak marrazki eta argazki erakusketa, kontzertuak ...

Pazko asteko ekintzak

★ **Martxoaren 25etik 28ra.** Txapelketa, irteerak, zinea... gazteen arabeko proposamen arabera osatutako ekintzak.

Ekintza hauek antolatzeko gazteen proposamenak ezinbestekoak dira, denen gustuko opor astea eraikitzeko.



Jarduera guztiak Gaztelekutik zuzentzen dira

Aise
Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea

20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**



Emazabel, abad nagusia

NORBERTO EMAZABEL, itsaropentsu denboraldi berriaren aurrean

Otsailaren erdialdean Udalaren eta Kofradiaren arteko bilera bat ospatu zen Done Pedro Itsas Gizonen Kofradian. Han bildu ziren alde batetik Aitor Kerejeta alkatea, eta aurtengo Kofradiako junta osatzen duten arrantzaleak. Beraien buru den Norberto Emazabel, Abad Nagusia, han zen. Aukera hura aprobetxatu genuen zenbait galdera egiteko.

Zertaz jardun duzue bileran?

Gauza asko jorratu ditugu. Beti da interesgarria Udalaren eta Kofradiaren artean erlazio ona mantentzea, eta horren inguruan kokatzen da bilera. Hasteko arrantzarekin loturiko kontuak aztertu ditugu, baina gero Hondarribiaren inguruko kontu askoz mintzatu gara, eta oso bilera interesgarria izan dela uste dut, bai Kofradiarentzat, eta ziuraski Udalarentzat ere.

Hasi berria den denboraldiari begira, zer esan deza-kezu?

Hilabete batzutan lehorrean egon ondoren, desiratzen ari gara itsasoan berriz hasteko. Ikusiko dugu nola doan urtea, baina beti printzipioz, aurreko urtekoa hobetzea da gure helburua, hortan saiatuko gara behintzat.

Arrainak daukan prezioaren inguruan kexarik izango duzue, ez?

Horrela da bai. Ez da posible guk arrantzatzen dugun arraina 0,70 eurotan saltzea, eta gero arraindegira joan eta han hiru euro balio izatea. Norbait dirua egiten ari da hor, eta ez gara arrantzaleak. Horrelako gauzak ez dira justoak, eta era batera edo bestera neurriak jarri behar dira. Ni arrantzan 1983. urtean hasi nintzen, eta zenbait arraina orain orduan baina merkeagoak dira.

Arrainaren prezioa jaitsi da, baina bizitzarena ez.

Hortxe dago kakra. Arrainaren prezioa jaitsi egin dela, baina beste guztiak gora egin du, bizitzaren alor guztietan, eta arrantzan baita. Gasoilagatik orain askoz gehiago ordaintzen da, barkuak, aseguruak... dena igo egin da eta

PANADERIA - OKINDEGIA
ARRATIBEL



" EGURREKO LABEA "

Barrio Mendelu - C/ Zubieta, 12
Telf: 943 64 19 75 - HONDARRIBIA



Cafetería - Restaurante
faro de higuier

PLATER KONBINATUAK - EGUNERO MENUA
ARRAINAK - HARAGIAK

Carretera del Faro, 58 - Teléfono 943 64 01 94
20280 HONDARRIBIA



Arrantza denboraldia hasi da



Iazko emaitzak hobetzea da helburua

arrainaren prezioak ez du jarraitu beharko zuen prezioa jarraitu, gutxienez arrantzaleentzat.

Zer gehiago hitzegin zenuten bileran?

Bernat Etxepare kalean egiten ari diren Kofradiaren etxebizitzak ere atera dira hizketaldian. Orain auzoaren barneko aldea egiten ari dira, eta erritmo ona daramate. Horiek izango dira gure etxebizitzak, eta gero kanpoko lerroa egingo da. Pozik gaude ikusita nola doan dena.

Nolakoa da Kofradiaren eta Udalaren arteko erlazioa?

Oso ona. Egia esanda, duela urte batzuk baina hobea. Aspaldi batean erlazioak ez ziren oso onak, baina azken urte hauetan onera egin du eta hori denontzat ona dela uste dut. Benta berriarekin, karroaren inguruan akordioetara iritsi

gara Udalarekin, eta bide onetik goazela uste dut. Ez du zentzurik Udalaren eta Kofradiaren artean hika-mikan aritzea.

Kai Zaharraren inguruan egingo den aldaketa nola ikusten da Kofradiatik?

Ongi. Benta eta Karroa handik atera zenez geroztik, oso erabilera urria duen ingurua da. Oso berri ona da Udalak bertan anbulatorioa handitzea eta lurpeko aparkaleku bat egitea. Herriak oso beharrezkoa duen zerbait da eta Kofradiakook ongi ikusten dugu. Badakigu konplikatu dela, ez baita bakarrik Udalaren lurra, eta beste erakunde gehiago daude jokuan. Ia dena ongi ateratzen den, Hondarribia-arentzat ona izango da eta.

podologoia

Unai Ortiz

kiropodia - quiropodia
ortopodologia - ortopodologia
ordenagailu bidezko miaketa
biomekanikoa
exploración biomecánica
computerizada

Matxin de Arzu 10, 2 bajo
20.280 HONDARRIBIA

Tel: 943 111 946
www.unaipodologoia.com

EUSKO-MEKO

**Boogies
QUADS
125 cc**

1.690 €

1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Kale-garbitzaileen inguruan



Martin Iturbe

Gaur goizean, bere garbitzaile-lan txukina egiten ari zen gizon jator hari "egunonak" esatean, ikasle nintzeneko gertakizun bat bururatu zait. Gasteizko seminarioan nintzen, orain berrogeita hamabost bat urte. Halakoxe alaitasun gorde ezinekoz zetorren; katedraleko kalonje zen bera.

Kalonje izateak, beren gain-jantziei dizdira bereizia itsasteko eskuidea ematen zien.

"Kale-garbitzaileen zaindariaren jaia da gaur" esan zigun.

Meza ematera deitu naute berengana. Aste egun bizia zen jakina. Botoin gorritz eta hari luze dizdiratsuz bere sotana haundi hura gorriminezko apainduriz dotoretua zetorren.

"Kale garbitzaileei meza ematetik nator", esan zigun.

Jai jantziz agertu nahi izan dut, langile jator eta apal hauengana. Behe mailakotzat hartzen ditu jendeak, beste edozein langilek merezi duen ohorea eman behar geniekeen hoiek.

Bihotz handiko gizona zen kalonjea. Begirune berdinez hartzen zituen txikien mailara gizartean zokoratutakoak ere.

Dena den, gaur goizeko pasadizoa gogoratzuz, honetara nator: Hondarribiko San Pedro kalea garbitzen ari zenari galdegin diot: zein da zuen zaindaria? Eta zein egunetan ospatzen duzue zuen jaia?

Porres-ko San Martin da gure zaindaria, eta azaroaren 3an ospatzen dugu gure eguna, erantzun dit. Hori jakiteak, delako Porresko San Martin hori zein izan zen jakitera jo dut.

Hona hemen: Mulatoa edo erdi-beltza zen, Liman jaioa. Ezkontza bidetik kanpo sortua, izen gaiztoz, "sasikoa" esan izan zaie horrelakoei. (Eskubide handiak izan ohi ditugu guk, inor epaitzeko orduan. Txikienak maltratatzeko ditugu gainera, gehienetan. Non gorde zen bere aita, zaldun burgostarra?).

1579. urtean jaiotako mutiko hura, praile domingotarren komentuan hartu zuten, Liman, 1600. urtean. Bizibide apal eta isilean eraman zuen hemengo bizialdia, zoruak eta etxeko zokoak garbitzen. Erratza beti eskutan, etxeko haundizkiak igaro behar zuten zelaietan inolako oztoporik ager ez zedin.

Bai txukun aski garbitu ere, Martiñek, zokoak eta zelaia! Txikien handitasuna goresen zekien Aita Santu bat etorri zitzaigun bere garaian, eta Porresko Martin, santuen mailara jaso zuen Joan XXIII Aita Santuak.

Porresko Martin izan zen, Aita Santu honek aldareetara jaso zuen lehen santua: zeinek jasoko? Joan XXIIIak; zeinek bada? Zein jasoko? Porresko Martin. Zein bada? Mulatoa, erdibeltza, sasikoa, santua.

Behin baina gehiagotan aipatu izan ditut orrialde hauetan, beren alorrean txapeldun suertatu direnak. Hori egitean, ager zitekeen, goiko gailurrera iristen denak bakarrik duela ohorea. Horrelakotan ere, beti txapela baino, aurrez egindako lana goraipatu izan dut nabarmentasunez. Neretzat, gora igo dena ez da txalogarri bihurtzen "igo delako", hara igo aurretik etengabetasun luzean egin duen lana egin duelako baizik.

Gaur, kalegarbitzaileak aipatzean, nere aipamenik eskertsuena zuzendu nahi diet, eta beraiekin batera, isiltasun iraunkorrean lanik apalenak egiten dituztenak txalotzen ditut. Aurrerantzean ere, atseginez egunonak ematen jarraituko dut, eguna argitu aurretik, guk oinezkatuko ditugu kale-zoruak dizdiratsu jartzen dizkigutenak. Bejondakiela!

Azaroaren 3 atsegin bezaie, erratza trebetasunez erabili zuen hura, Porresko Martin Santua alegia, isil-apal bizi izanaz, "haundi" garela uste dugunoi, eredu argitsu datorkigulako, eta egokitasunez zaindaritzat hartu duten gure kale-garbitzaileei.



TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA

Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12



kai zahar



ARRAUN ELKARTEA GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Done Pedro Arrantzaleen Kofradiak



Ezkerretik eskubira, Ixabel Olazabal, Aitor Kerejeta eta Norberto Emazabel, aurkezpen ekitaldian

Otsailaren 6an, Udaletxeko Areto Nagusian euskararen aldeko lankidetzako hitzarmena sinatu zuten Udalaren aldetik Aitor Kerejeta alkateak eta Kofradiaren aldetik, Norberto Emazabel Abad Nagusiak.


Hondarribiko Alkate Aitor Kerejetak esan zuenez, "Hondarribiko Elkarterik esanguratsuenetakoa dugu Kofradia, eta horregatik egokia ikusi dugu beraiekin lan egitea. Biak elkarrekin joan behar dugu euskara sustatzen, eta horretarako sinatzen dugu akordio hau".

Norberto Emazabel Kofradiako Abad Nagusiaren hitzetan, "Hondarribia herri euskalduna da, arrantza

mundua ere euskalduna izan da, eta horrela izatea nahi dugu etorkizunean. Guretzat garrantzitsua da Udalarekin batera lan egitea, denok daukagu eta helburu berdina".

Ixabel Olazabalek, Euskarako zinegotziak aldiz zera gehitu zuen, "lankidetzako hitzarmenaren helburua euskararen normalizazioa" dela esan du. "Horretarako aztertu da Kofradia bere osotasunean, hau da, bulegoa, dokumentuak eta idatziak, denda eta bertako kartelak eta fakturak, eta azkenik, arrantzaleen artean erabileran eragiteko moduak eta gure baliabideak, adibidez, ikastaroak antolatzeko aukera".

INAUTERIETAKO DESFILEA AR



RAKASTA HANDIZ GARATU ZEN



Loraitzeko haurtzaindegia 2009ko udaberrirako gauzatuko da



Loraitzeko haurtzaindegiak itxura hau izango du



Belardi honetan hasiko dira obrak datozen asteetan

Udalak 'Eraikuntza Birgaikuntza Artapena' (EBA, S.L.) enpresari esleitu dio Loraitzeko haurtzaindegia eraikitzeko kontratua. Obraren aurrekontua bi milioi eurokoa da eta hamabi hilabeteko epea izango du enpresak. Orotara hamabi enpresa aurkeztu ziren lehiaketara.

Hondarribiko Alkate den Aitor Kerejeta pozik agertu da. "Herrian oso beharrezkoa den ekipamendua da. Etengabe ari gara urratsak ematen eta obraren esleipenarekin, azken urratsetik hurbil gaude. Aste gutxitan lanak hasiko dira eta urtebete inguru behar-ko da dena amaituta egoteko".

"Beharra den moduko haurtzaindegia izan nahi dugu, gurasoek haurrak toki seguru eta bikain batean utzi ahal izateko. Gainera, beheko solairuan aparkaleku bat eraikiko dugu, haurrak jaso eta uztea erraztuko duena" gehitu du Kerejetak.

Haurtzaindegiak 0-1 eta 1-2 urte bitarteko haurrak jasotzeko gehie-
nez 105 plaza izango ditu. Instala-
zio berri honekin, alor publiko eta
pribatuaren artean dagoen eskaintza-
zaren %40 betetzeko gomendioa
jarraitzen da.

mandragora studio

t. 943 644 639 m. 629 564 723
unai.mandragorastudio.com
www.mandragorastudio.com
matxin de arzu 14 20280 hondarribia

eukeni optika

optiko - optometristak

San Pedro, 57. 20280 Hondarribia. Gipuzkoa. 943 643 805

Dendan berrikuntzak direla eta bitartean San Pedro, 26-en
(Gran Sol jatetxearen aurrean) egongo gara
Barkatu eragozpenak

Lorentxa Legorburu omenduko du Emekik emakumearen astean

Martxoaren 3tik 11ra Emakumearen Astea ospatuko du aurten ere Emeki Elkartek. Emakume artisten erakusketa, ikasleen lanak, emakume langilearen eguna, eta nola ez, emakume hondarribiar bati urtero eskaintzen zaion omenaldia izango da. Aurten, Lorentxa Legorburu izan da hautatua.

Martxoaren 3an, arratsaldeko 19.00etan hasiko da ekitaldi-sorta, hilaren 13 arte zabalik egongo den emakume artisten erakusketarekin. Zuloaga Etxean izango da irekiera-ekitaldia, eta bertan lunch bat antolatu da.

Martxoaren 6 eta 7an, emakume ikasleen lanen erakusketa ikus ahal izango da Pascua arte galerian, Uxoa tabernaren ondoan. Arratsaldeko 17.00etatik 20.00etara egongo da zabalik. Hilaren 7an, ostirala, emakume langilearen eguna ospatuko da. Aireportuko jatetxean egingo da bazkaria, denontzat irekia izango dena.

Azkenik, hilaren 9an, igandean, eguerdiko 13.00etan emakume hondarribiar bati omenaldia egingo zaio. Lorentxa Legorburu izango da omendua. Jai-egun honetan, trikitilari eta bertsolariak ez dira faltako.



Pascua arte galerian ikasleen lanak erakutsiko dira



Irekiera ekitaldia martxoaren 3an izango da

ILEAPAINDEGI MISTOA

LAIDA

San Pedro Kalea, 71 - behea
20280 **HONDARRIBIA**
Tel. 943 64 13 59
(Aurretiaz ordua eskatu)

Ireki Berria !
Ireki Berria !

MA SAI

estetika
masai
zentrua

Iratz Armabarrena

San Pedro 30 20280 HONDARRIBIA
(sarrera Zuloagatik/entrada por Zuloaga)

t 943.646.320



Arrantza denboraldi berria hasi da

Joan den hilaren 12an, Santanderren bildu ziren Kantauri Itsasoko Kofradietako ordezkariak. Norberto Emazabel, Hondarribiko abad nagusia bertan izan zen. Bistan dena, 2008ko bigarren seihiakoan antxoaren balizko arrantzaldiaz eta erregaien garestitzea izan zituzten bileraren ildo nagusiak. Azaroan Getarian izandako euskal arrantzaleen arteko bilera eta gero, frantses Kofradiekin akordio batera iritsi eta Hondarribiko arrantzaleek antxoaren arrantzaldira abiatzeko prest agertu ziren.

Baina Europar Arrantza Batzordeak atzera bota zituen itxaropen guztiak. Bruselak argi utzi baitu, antxoaren biomasa ez dela segurtasun neurrietaraino berreskuratu. Emazabelek azaltzen duenez, "udaberrian berriz ikerketa biologikoak egingo dituzte eta ikusiko da zein den egoera".

Gasoilaren emendatzea

Baina itsasotik erdietsi ditzazketen mozkinetatik haratago, azken hilabeteotan eman den gasoilaren etengabeko garestitzeak estutu du arrantzaleen egoera. Hondarribiko abade nagusiak dioenez, "gasola oinarritzkoa da barkuek lan egin ahal izateko". Eta tamalez, erregaiek jasan berri duten garestitzeen ondorioz, untzi baten eguneroko gastuaren %35 eta %40ren bueltan ibiltzen da gasoilaren aurrekontua.

Egun bateko lanak 500 bat eurotako erregai- inbertsioa eskatzen dio armadoreari. Eta egungo egoera ikusirik, "harrapaketa ez daude ziurtaturik". Hortaz, Kantauri itsasertzeko Kofradiek erregaien gastuari aurre egin ahal izateko, dirula-

guntzak eskatuko dituzte Madrilén. Bistan dena, hilaren 25ean, CEPESCA erakundean izango dute bilkura laguntza hauen negoziatzeko.

Dena dela, egoera zaila izan arren, arazoa erregaien prezioan baino, arrainaren salmentan dagoela dio, Norberto Emazabelek. "Gaur egun atuna, adibidez duela hogeitorteko prezio berean saltzen ari gara. Gure gastuek gora egiten badute, eta sarrerekin ere berdin gertatuko balitz, ez genuke arazo hau izango", azaldu du abad nagusiak.

Era berean, egoera gordin hau arrainaren merkatuan ematen den arrantza eta bitartekarien arteko desorekak sortzen duelakoan dago arrantza hondarribitarra. Bere esanetan, "logikoa ez dena, adibidez, bentan hegaltzea bi edo hiru eurotan saltzea, eta gero arraindegian aurkitzea hamabi eurotan". Hortaz, injustizia honen aurrean arrantzaleek zerbait egin beharko dute.

Berdelaren kanpaina

Modu batean zein bestean, arraina lehenik harrapatu egin behar da. Eta Hondarribiko Kai-Zaharrean hilabeteak dira, benetan negozio egiteko moduko harrapaketak lehorreratzin ez dutela.

Udazkenean sareak konpondu eta untziak atontzeko parada izan dute.

Baina azken kanpaina hauetan inoiz baino kantidade handiago lehorreratu dutenez, hila-bete lasaigoak izan dira berdeletan aritu izan diren haiek. Une hauetan, arrantontzi txikiak berdelaren kostera abiatzeko prestaketa lanetan ari dira. Norberto Emazabelek aurreratu duenez, "otsailaren 18an untzi handienak hasiko dira berdeletan, eta otsailaren 23an, berriz, txikiak".



ARRANTZALE KOFRADIAN URTARRILAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 295,00 kilo.
Makarela (*Scomber japonicus*): 621,70 kilo.
Dorada edo Urraburua (*Sparus aurata*): 103,50 kilo.
Zapataria (*Gerris*): 532,00 kilo.
Sardina (*Sardina pilchardus*): 52.116,20 kilo.
Gaizapoa (*Lophius*): 377,30 kilo.
Erla (*Lithognathus mormirus*): 25.553,70 kilo.
Muxar handia (*Diplodus sargus*): 23,10 kilo.
Zarakuntza (*Oblada Melanura*): 4.282,60 kilo.
Bestelakoak: 7,00 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)

La **bacaladera** S.A.U.



Irun eta Hondarribiak historian zehar izandako erlazioa aztertu da

Marta Trutxuelok mendeetan zehar izan diren liskarrak bildu ditu liburu batean



Koldo Ortega

Irun eta Hondarribiak historian izan duten erlazioa askok aztertu dute. Azterketa horiek zenbaitetan argitaratu egin dira, eta azken adibidea, Marta Trutxuelok egin du, "Irun y Hondarribia: dos entidades locales durante la Edad Moderna" liburuan. Irungo Udalak argitaratu zuen duela aste batzuk, eta irakurtzen hasita, lehenik eta behin, interesgarria eta ongi dokumentatuta dagoela ikus dezakegu. Esan ere, liburua, Irungo Udalak antolatzen duen Serapio Mujika beka deialdi baten ondorio dela.

Egileak berak dioen bezala, "ikerketa honetan Irungo Unibertsitatea eta jurisdikzio-burua zen Hondarribiko hirigunearen arteko botere harremanak aztertzen dira. Hain zuzen ere hainbat eremu ikertzen dira: merkataritzari buruzko ekintzak kontrolatzearen sortutako eztabaidak, herrixkaren gobernu politiko eta militarren liskarrak, eta azkenik, XVI, XVII eta XVIII. mendeetan zehar aske jurisdikzionala lortzeko sorturiko epaiak".

Mendeetan zehar Irun eta Hondarribiak mantendutako liskarrak asko izan dira. XV. Menderarte, herria (orduan Hondarribia zen) eta inguruaren (orduan Irun zen) arteko erlazioa nahiko paketsua izan zen, kontuan izanik herriak inguruaren gain zeukan nagusitasuna nabaria zela.


Irungo ingurua (gaztelaraz aldea de Irun) ekonomia eta populazio aldetik goruntz joaten hasi zenean, une berean Hondarribia bere gainbeheraren lehen urratsak ematen hasi zen. Hondarribiak gainera zetorkion arriskua ikusi zuen, eta Irunen gainean zeuzkan aginteak behar ez bezala erabiltzen hasi zen. Kontestu honetan hasi zen bi herrien arteko lehen liskar serio eta gogorra: Hondarribiak mugak jarri zizkion Iruni, etxeak eraiki eta jarduera komertzialak debekatu zizkiolarik.

XVII. mendearen hasieran, bi guneen arteko istiluen giroaren barnean, Irunek Hondarribitik banatzea eskatu zuen. Hasera batean, Gipuzkoako probintziko agintariak Irunen alde agertu baziren ere, Hondarribiak orduan zeukan indarrak eragin handia izan zuen.

Probintziak egindako lana

Probintziko agintariak Hondarribia eta Irunen artean sartu ziren. Batzutan Irunen alde agertzen ziren eta beste batzuetan aldiz, Hondarribitarren alde egiten zuten. Hala ere, Behe Erdi Aroan eta Aro Berrian, Irungo Unibertsitateak aurrera egin zuen, gero eta ekonomi eta politika aldetik eskumen gehiago eman zitzaizkion, eta horrek, denborarekin ondorio bat ekarri zuen: gero eta hurbilago zegoen herri eta inguruaren arteko banaketa.

Azkenik, Unibertsitateak aspaldian eskatzen zuen banaketa lortu zuen, hain zuzen ere 1766. urtean. Ordutik aurrera, Bidasoaren muga kokatutako herriak bere historia idatziko du, bakarrik, eta gaur egun dena izatera iritsiko da.



Argitaratu berria den liburua

EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

TAUPADAK: Euskal ordezkaritza solidarioa Bolivian

Aldizkariaren azken alean hasita, eta datozen hila-beetan, Hondarribiko Udalatik diruz laguntzen diren Gobernu Kanpoko Erakundeengatik inguruko hurbilketa egiten saiatuko da. Asmoa, zati txiki bat izan arren, Udaletik kooperaziora zuzentzen den dirua zertan bihurtzen den jakitea.

Oraingo honetan, txanda Taupadak erakundeari tokatzen zaio. Horretarako, bere presidente den Fernando de la Herarekin egon gara. "Hamaika urtez jarraian jaso dugu laguntza Hondarribiko Udaletik. Beste zenbait erakundek ematen diguten laguntzarekin batera, ezinbestekoa da kopuru hau hainbesteko beharra dutenei laguntzeko. Gu hemen oso ongi bizi gara, baina beste toki askotan ez da horrela, eta horregatik, beraien alde egiten duguna gutxi izango da" dio De la Herak.

Boliviako Amazoniarekin erabat loturik dago Taupadak. Hemen Fernando de la Hera, Bolivian bertan Toño Puerta, eta biekin batera, erakundearen irudi esanguratsuena, Manuel Egigurenek, euskal frantziskotarrak. 77 urteko gizonak, bizitza osoa darama behar duenari laguntzen.

"Amazonian bizi direnek" dio De la Herak, "lurra eta duintasuna eskatzen dute, besterik ez. Gu horrekin erabat ados gaude, eta hori lortzeko urratsak ematen ditugu. Badakigu gutxi direla, edo egiten duguna handitasunean galdu egiten dela, baina egiten duguna zuzena dela daki-gu eta hor jarraituko dugu".

Taupadak-eko kideak ez dira inoiz bakarrik sentitu. "Kaleko jendeak asko lagundu du, bere aportazioak egiten, eta

nola ez, erakundeei eskerra eman beharrean gaude. Beti egon dira guri laguntzeko prest. Sendo eta ongi lan egin-da erakundeengatik laguntza hori irabazi dugula uste dut, eta asmoa horrela jarraitzea da".

Evo Morales bezalako indigena boterean egotea "onuragarria" dela diote Taupadak erakundekoek. "Lan gogorra dauka aurretik, baina beti da positiboa indigenak herritarren zati hain handia izanda, beraietako bat boterean egotea".



Etengabeko lana egiten du Taupadak-ek Bolivian

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Proiektu nagusienak

Taupadak erakundeak era guztietako proiektuak kudeatzen ditu Bolivian. "Lehenik eta behin azterketa sakon bat egiten da hango jendeak zer behar duen ikusiz, zer den egin dezakeguna eta zenbat jenderi egingo diogun mesede. Hortik aurrera, proiektuak prestatu, diru-laguntzak eskatu, burokrazia gainditu eta indigenei gure laguntza eskaintzea da helburua" dio Fernando de la Hera presidentek.

Egin ditugun eta une hauetan garatzen ari garen proiektuen artean, beraienak (indigenenak) diren lurren berreskuraketa titulazioen bidez, duela hilabete batzuk izandako uholdeen ostean elikagaiak eta bizi baldintza gutxienekoak eskaintzea, ospitaletako langilegoa formakuntza

eta kapazitazioa erraztea, Aymara herria alfabetizatzea... Informazio gehiago nahi duenak, aski du www.taupadak.org web gunea bisitatzea, beharrezkoa duen informazioa hantxe topatuko du eta.

Datozen asteetan, San Ignacio de Moxos-eko abesbatza eta orkestra Europara etorriko dira zenbait kontzertu eskaintzera. Bigarren musika-lana aurkeztuko digute, lehenak izan zuen arrakasta errepikatu eta gainditzeko asmotan. Raquel Maldonado Villafuerteren zuzendaritzapean "Tras las huellas de la Loma Santa" izeneko diska aurkeztuko dute, Boliviako Ichasi Awásare-ko instalazioetan grabatua. Hau ere, Taupadak eta Euskal Herriko zenbait Udaletxeren laguntzarekin egindako instalakuntza da.



San Ignacio de Moxos-eko musikariak Europara etorriko dira datozen asteetan

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Abian dira aurten ere Baratza eta Itsasertzaren garbiketa proiektuak

Aurten ere, "EIN-Udal Korporazioak Enplegu Egitaraua" proiektuaren barruan Baratza eta Itsasertzaren garbiketa izeneko proiektuak martxan daude, lau hilabeteko iraupena dutelarik, azarotik martxora bitarte.

Litoral garbiketa proiektuan 5 lagunek parte hartzen dute (4 langilek eta hezitzaile batek) eta Jaizkibel, Guadalupe, itsasargiaren ingurunea, ubideak, senaiak eta kai muturra egokitzea eta garbitzea dute helburu.

Baratza proiektua hezitzaile batek eta 4 langilek osatzen dute. Proiektu honek helburu hauek ditu: nekazaritza ekoizpenaren mantenu lanen bitartez Baratz Komunitarioa sustatzea, ingurunearen eta



Itsasertza proiektuak urteak daramatza kostaldea garbitzen



Baratza Botika baserriaren aurrean dago

lanabesen zaintza, apaingarri batzuk egitea, eta Baratz Komunitarioa hedatzea hiritarrek parte har dezaten.

Bi proiektu hauek Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak koordinatzen ditu, Hondarribiko Udalak eta EIN-k diruz lagunduak dira, eta Udaleko zenbait departamenduren laguntza dute.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuarekin harremanetan jarri ondoko telefono zenbakian, 943 114000.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Granada zukuaren abantailak

Granada zukua askorentzat ezaguna izango da ziurrenik. Hala ere, gehienek ez dakigu zeintzuk diren granada zukuak dituen abantaila eta ondorio osasungarriak. Azken urteotan egin diren ikerketari esker jakin ahal izan da daukan propietate batzuen artean, odola purifikatzen duela, ateroma plaken eraketa saihesten duela, bihotzerre arintzen duela, digestioa egiten laguntzen diola, odol presioa erregulatzen duela, organismo bizkortzen duela, sistema immunologikoa gogortzen duela eta gaixotasun askoren sorrera saihesteko laguntza ona dela. Ikerketa zientifikoek, menopausiaren ondorioak saihesteko aukera ona dela diote ere, beti ere zuku bezala hartuta.

Alderdi nutritiboari dagokionez, bitamina A, B1, B2, B3, B9, C eta E delakoetan aberatsa da. Granada zuku edalontzi batek azido folikoaren %100 eguneroko dosia dauka eta A, C eta E bitaminaren dosi erdia. Fosforo, kloro, manganeso, silizio, zinc, kaltzio, magnesio, kobre eta burdinaren iturri handia da. Hala ere, granadak duen mineral ugariena potasioa da, jarduera muskularrentzat egokia eta nerbio-kinadarentzat beharrezkoa dena.

Bestalde, granada fibretan aberatsa da, kaloria eta karbohidrato gutxi ditu. Azido zitrikoa du (desinfektatzaile, pixaren alkalizatzaile, eta C bitaminaren indartzaile), maliko azidoa, flabonoide, eta taninoak (antioxidatzaile substantzia eta digestibo mukosen antiinflamatoria eta lehorgarri propietate dauka). Orain artean probatu ez baduzu, orain duzu aukera egokia.

Laburbilduz, granadak eskaintzen dituen aukerak honakoak dira

- Antioxidatzailea
- Lehorgarria. Digestioari laguntzen dio.
- Garbigarria.
- Antiinflamatorioa eta antiseptikoa.
- Bihotz babeslea.
- Neurobabeslea.
- Antianemikoa.
- Estrogenikoa.
- Kondrobabeslea.
- Antikanzerigenoa.



-SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €

2+1 dohainik eta 7+5 dohainik

-ECO-SALIN fruitu marmelada 325 gr: 3,68 €

1+1 dohainik

-LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukrrrik gabe

1l: 3,65 €

1+1 dohainik eta 6+7 dohainik

-ECO-SALIN berde olibak 140 gr: 1,35 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-BIOCOP intxaurreak 300 gr: 5,35 €

%50 unitate

-RAPUNZEL txokolate-intxaurreak, olo muesli

350 gr: 5,40 €

1 + 1 dohainik

-SOLE LUNA almendra pelatuak: 2,65 €

1 + 1 dohainik

-SANITURI soja flan 250 gr: 2,30 €

3 + 1 dohainik eta 4+2 dohainik

-Zereal-soja, banilla eta txokolate postre 500 gr:

3,95 €

3 + 1 dohainik

Arreta pertsonala

iHondarribian!

txuntxumela.
zure **SUPER B10**

ETKEZ ETKEKO ZERBITZUA
HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN

943 641450

Santiago kalea, 33. Hondarribia

biotxuntxu@terra.es

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN




HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituena. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebekin eta aitonaarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrek tirata, edo suaren garrantzia, suak berotasuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eraman zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloiaren orde zuzila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzan izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburu bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Egungo artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko. Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritzi argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekua eta hiru hizkuntzatan argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**



Urte berria, jarduera berriak

EUSKADIKO UNIBERTSITATEETAKO EGUNEROKO GARRAIO GASTUAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZAK 2007-2008

Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Euskadiko Unibertsitateetako eguneroko garraio gastuak ordaintzeko dirulaguntzak 2007-2008. Epea: Urtarrilak 31a.

Baldintzak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean errolatuta egotea.
- 2007-2008 ikasturtean unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiten aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikastegi batean edo goi-mailako ikastegi batean.
- Ezarritako baldintza ekonomikoak betetzea.
- Dagokion aginduan adierazitako irakasgai- edo kreditu-kopuruan matrikulatuta egotea.
- Egunero norbere ohiko bizilekutik unibertsitate-ikastegira joatea (distantziak 10 kilometrotik gorakoa izan behar du).
- 2007-2008 ikasturtean beste bekarik edo unibertsitate-garraiorako dirulaguntzarik ez jasotzea.

HERRIA JOKOAN GINKANA 2008



Lurrikara batek zure herria suntsitu du.

Parte hartu eta lagundu berreraikitzen!!!!!!

12 eta 30 urte bitartean badituzu eta EAEn bizi bazara anima zaitez.

Izena ematea abenduaren 3tik urtarrilaren 31ra arte www.herriajokoan.com/harribide web orrialdean.

Sariak: 2 MP3, 2 iPod, ordenagailua, kamera digitala eta 20 jolas kooperatibo.

Oinarriak, egutegia, sailkapenak,... den dena web orrialdean aurkituko duzue!!!!

Animatu eta partehartu herria berreraikitzen!!!!!!

ASTIALDIKO ZUZENDARIA IZATEKO IKASTAROA



Hezkide Eskolak Haur eta Gazteen astialdiko zuzendaria izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren egutegia 2008ko otsailetik maiatzera izango da eta Donostian izango da.

Informazio gehiago:

Hezkide Eskola, Heriz Pasealekua, 82. 20008 Donostia.

Tfnoa: 943 311474 / 311475 - Faxe: 943 311476

Posta elek.: hezkide@euskalnet.net - Web or.: <http://www.hezkide.org>

Prezioa: 250 €

Epea: Otsailaren 1a.



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Zein da etxe honen funtzioa ?



Heldu gara berriz ere irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Lehiaketan parte hartzen duen jende kopurua ikusita, irakurri eta parte hartzen duen jende asko dagoela ikusi dugu, eta gehianek gainera erantzun egokia ematen dutela ere. Urtarrileko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote.

Oraingo honetan etxe honen funtzioa zein den galdetzen dizugu. Guztiok badakigu non kokatu, Alde Zaharrean dago, Paradorea-ren alde batean. Askotan handik igarotakoak gara, Arma Plazara edoza Elizara igotzeko, baina ziur, bat baina gehiagok ez dakiela zer den, eta berriz ere hara joan beharko duela begiratzera. Gogoratzen bazara, paper batean idatzi eta Euskara Zerbitzura bidali, martxoaren 13a aurretik.

Azken aleko galdera erantzun dutenen artean bat hautatu behar, eta zozketaren irabazlea **Mari Carmen Aguirre Zabalza** izan da. Berari dagokio beraz bi pertsonentzako afaria Beko Errota jatetxean. Bigarren saria, eta beraz Euskara Zerbitzuko liburu-sorta, **Amaiur Iridoy Lapitz**-entzat izan da.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952


san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Aste Santua duela ehun urte

Berriro ere Udaleko Udal Artxibategira jo dugu bertan dauden altxor ikaragarri irteera bat emateko asmotan. Oraingo honetan apur bat aldatzea erabaki dugu, eta beste ikuspuntu bat erabili nahi izan dugu, beti eraikinak eta kaleak argitaratzen baititugu.

Aste Santuaren gainean daukagu, eta ezinbestekoa genuen gaiari loturiko irudiren bat argitaratzea. Bertan ikusten den bezala, prozesioaren ibilbidea ez da gaur den bezalakoa, gaur egun ez baita elizako pasaderatik igarotzen.

Etxean horrelako altxorak dituen jendeak, eta gure aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Udaleko Euskara Zerbitzura bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta.





okindegia • gozategia



kafetegia

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

San Pedro, 3 - Atzekaldea
943 64 03 66

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
- ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGURAK

Urtarrila2007

JAIOTZAK URTARRILAN

- 4an:** NEREA Garcia Muñoz, Irungo Miguel Angel eta Donostiako Ana Mariaren alaba.
- 9an:** PERU Alza Arcauz, Hondarribiko Josu eta Aretxabaletako Eneritzen semea.
- 10ean:** ADUR Aldaia Bassagaistegi, Donostiako Arkaitz eta Olaberriako Maria Jimenaren semea.
- 10ean:** GARAZI Zeberio Zubillaga, Tolosako Miguel eta Hondarribiko Karmeleren alaba.
- 11n:** JAVIER Aseginolaza Martin, Irungo Rafael eta Granadako Mariaren semea.
- 13an:** ANDER Figueroa Igiñiz, Hondarribiko Ambrosio Ezequiel eta Irungo Alejandraren semea.
- 16an:** ODEI Emazabel Etxegoien, Hondarribiko Ramon eta Irungo Elenaren semea.
- 18an:** NAIALE Gonzalez Zinkunegi, Hondarribiko Juan Marcos eta Zizurkilgo Lierniren alaba.
- 19an:** MATEO Jauregi Lopetegi, Hondarribiko Oscar eta Irungo Carolinaren semea.
- 19an:** DANIEL Zugariuk, Basilio eta Ukrainako Ilonaren semea.
- 20an:** XABIER Ustariz Lazkanotegi, Irungo Javier eta Hondarribiko Elenaren semea.



EZKONTZAK URTARRILAN

- 26an:** JOSE Diaz Cela, Barcelonakoa, eta AMAIA Azanza Susperregi, Hondarribikoa.
- 26an:** CARLOS Anta Mansilla, Donostiakoa, eta OLATZ Angulo Lacarta, Irungoa.



HERIOTZAK URTARRILAN

- 2an:** CIRIACA Amunarriz Hernandorena, Hondarribikoa, 86 urte, San Pedro kalean.
- 4an:** PEDRO Arozena Alza, Irungoa, 73 urte, Jaitzkibel etorbidean.
- 8an:** JUANA Kortaberria Treku, Pasai Antxokoa, 87 urte, Almirante Alonso kalean.
- 10ean:** ISAAC MARIANO Sierra Sarria, Pozuelo de Aragon-koa (Zaragoza), 93 urte, Lezo plazan.
- 11n:** JOSEFA Navarro Merino, Huerkanos-koa (Errioxa), 60 urte, Baserritar Etorbidean.
- 11n:** JOSE RAMON Mitxelena Otegi, Hondarribikoa, 62 urte, Irunen.
- 12an:** JOSE BRAULIO Martino Almandoz, Doneztebekoa, 84 urte, Lezo plazan.
- 13an:** JESUS Emazabel Alza, Hondarribikoa, 95 urte, Madalen karrikan.
- 14an:** FERMIN Zumeta Medina, Pasai Antxokoa, 48 urte, Itsasmendi etxadian.
- 14an:** FERMIN Amunarriz Ugalde, Hondarribikoa, 77 urte, Bernat Etxepare kalean.
- 17an:** REMEDIOS Gonzalez Esquivel, Feria-koa (Badajoz), 87 urte, Mendelu kalean.
- 19an:** MARIA FRANCISCA Ugalde Manterola, Hondarribikoa, 91 urte, Lezon.
- 19an:** JULIAN Echeverria Perez, Hondarribikoa, 71 urte, Irunen.
- 20an:** MAR GARITA Sorzabal Urrestarazu, Hondarribikoa, 95 urte, Leiba Jeneralren kalean.
- 23an:** FRANCISCA Etxeberria Mendizabal, Hondarribikoa, 78 urte, Arkollako Marianearen baserrian.





FERMIN OLASKOAGA
jasotako datuak:

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK URTARRILAN

Altak:Jaiotzak: 11, eta kanpotik etorriak: 80.
Bajak:Hildakoak: 15, eta herritik joanak: 35.
Biztanle kopuru orokorra:16,475 bizilagun.

URTARRILAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 43 euskaraz, 180 gaztelaniaz eta 5 bestelakoak. Guztira: 228 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 31 euskaraz, 58 gaztelaniaz eta 1 bestelakoak. Guztira: 90 liburu.

Bazkide berriak: 0 gizon eta 0 emakume. Horietatik 0 heldu eta 0 haur. Guztira 0.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: Lotarako Disney istorioak.-

Gaztelaniaz: IBAÑEZ, F. - Olé: Mortadelo y Filemón.- Ediciones B.

Helduak:

Euskeraz: ATXAGA.- Behi euskaldun baten memoriak.- Pamiela.

Gaztelaniaz: FOLLET, Ken.- Un mundo sin fin.- Plaza y Janés.

Oharra: Urtarrilaren 30a arte liburutegia itxita egon da mantentze obrak zirela eta.

URTARRILAKO EGURALDIAREN DATUAK.

Tenperaturarik gorena:18,9° C, hilaren 21ean.
 Tenperaturarik beherena:-1,5° C, hilaren 1ean.
 Batez besteko tenperatura:10,2° C.
 Batez besteko hezetasuna:% 75.
 Euri-litroen kopurua:140,0 litro.
 Egunk euritsuena:hilaren 15ean 33,4 litro.
 Euri indartsuenen unea:hilaren 15eko 20,15etan, 0,228 litro/orduko.
 Egunk euritsuak:13 egun.
 Elur egunak:0 egun.
 Kazkabar egunak2 egun.
 Ekaitz egunak2 egun.
 Behe-laino egunak:2 egun.
 Ihintz egunak:13 egun.
 Zeru oskarbi:egun 1.
 Zeru lainotua:17 egun.
 Zeru estalia:13 egun.
 Eguzki kopurua:87,8 ordu.
 Batez besteko presioa:1021,5 milibar.
 Presiorik gorena:1039,5 milibar, hilaren 25ean.
 Presiorik beherena:989,4 milibar, hilaren 3an.
 Haizea >55 Km/ord.8 egun.
 Haizerik indartsuena:hilaren 15eko 16,25etan, 89 Km/orduko.

(Hondarribiko aireportutik jasoak).

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA






**URTE
25
ANOS**

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com



DOBLE A
www.doble-a.com

Tel: 943 667 003

Amute, 8 bajo C (Frente Aeropuerto) - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún